EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL
2022 URR. OCT. 27
SARRERA/ENTRADA 5791 IRTEERA/SALIDA

Dokumentu mota / Tipo de documento: ENMIENDAS AL PROYECTO DE LEY

Nori zuzendua / Dirigido a: A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Proposatzailea / Proponente: JUEZ, EVA (EA-NV)
PRIETO, TXARLI (ES-SV)

Data / Fecha: 2022.10.27

Espediente zenbakia / Número de expediente: 12\09\01\00\00023

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: Kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutuarena //Del Estatuto de las personas consumidoras y usuarias

EA-NV

ES-SV

1. ZUZENKETA, 30. ARTIKULUA ALDATZEKOA

30. artikulua, honela geratzen da idatzita:

30. artikulua. Etxez etxeko salmenta

1. Kontsumitzaileak edo erabiltzaileak eskatu ez dituen produktuak edo zerbitzuak kontsumitzailearen edo erabiltzailearen etxean saltzeko, aldez aurreko baimena behar da. Baimen hori salmenta-bisita egin baino 48 ordu lehenago lortu beharko da gutxienez, eta honako hauek jaso beharko ditu:

a) Bisitaren eguna eta ordua.
b) Saldu nahi den produktua edo zerbitzua,
c) Produktua edo zerbitzua saltzen duen enpresaren izena eta helbide soziala, eta
d) Bisita egingo duen pertsonaren izena.

2. Enpresaburuen erantzukizuna da informazioa eta baimena egiaztatzea eta kontsumoko agintarien aurrean aurkeztea, hala eskatzen bazaie.

Justifikazioa: hobekuntza teknikoa.

2. ZUZENKETA, 49. ARTIKULUA ALDATZEKOA

49. artikulua, honela geratzen da idatzita:

49. artikulua. Zerbitzu-lineako eskaintzetan enpresaburuen nortasunari buruzko informazioa

Kontsumitzaileei ondasunak erosteko edo zerbitzuak kontratatzeko aukera linean eskaintzen dietenek argi eta garbi jakinarazi beharko diete kontsumitzaileei eta erabiltzaileei kontratua egingo den enpresaren nortasunari edo produktua eskuratzeari buruz, bai eta kontratazio horren gainean eskaintzaileei dagokien erantzukizunari buruz ere.

Justifikazioa: hobekuntza teknikoa.

3. ZUZENKETA, 94.1 ARTIKULUA ALDATZEKOA

94. artikulua, honela geratzen da:

94. artikulua.- Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordea

1. Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak Kontsumoko Arbitraje Sistema sustatu, kudeatu eta garatuko du Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordearen bidez, eta udalekin koordinatuko du haren funtzionamendua.

2. Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak, enpresaburuak eta profesionalak eta haien erakundeak Kontsumoko Arbitraje Batzordeari atxikitzea sustatuko du, eta lankidetza-hitzarmenak sinatu ahal izango ditu haiekin helburu horrekin.

Justifikazioa: hobekuntza teknikoa.

4. ZUZENKETA, 142.2 ARTIKULUA ALDATZEKOA

142. artikuluko 2. Paragrafoa, honela geratzen den idatzita:

142. artikulua.- Arau-hausteen kalifikazioa eta mailaketa.

1. (...)

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa aplikatu behar ez denean, arau-hausteak, hasiera batean, egitearen edo ez-egitearen ezaugarrien eta erantzulearen erruduntasunaren arabera kalifikatuko dira, honako arauen hauen arabera:

1. Artikulu honen hirugarren paragrafoaren arabera oso larritzat jotzen ez badira, larritzat joko dira hurrengo arau-hausteak:
a) 134. artikuluko 4. paragrafoa
b) 135. artikuluko 1. paragrafoa
c) 137. artikuluko 6. eta 8. paragrafoak.
d) 138. artikuluko 1., 21. eta 22. paragrafoak.
e) 139. artikulua.
f) 141. artikuluko 8., 9. eta 13. paragrafoak

(...)

Justifikazioa: Oinarrizko araudira egokitzea.

5. ZUZENKETA, 6. ETA 7. ATALAK 44. ARTIKULUARI GEHITZEKOA

44. artikuluari 6. eta 7. paragrafoak gehituko zaizkio:

44. artikulua. Ondasun eta zerbitzuen etiketatzeari eta aurkezpenari buruzko informazioa.

(...)

6. Kontsumitzaileei laburpen-dokumentu bat eman beharko zaie, eskaintzen den produktuaren edo zerbitzuaren funtsezko baldintzak eta, bereziki, eragin ekonomikoa dutenak jasoko dituena, irakurtzeko moduan, argi, erraz eta behar bezala.

7. Produktu edo zerbitzu bat erosteko finantzaketa eskaintzen den kasuetan, dokumentu bat eman beharko da, eta bertan argi eta garbi adierazi beharko da produktuaren edo zerbitzuaren azken kostuaren alderaketa, finantzaketarekin edo gabe.

Justifikazioa: Informazioa indartzea eta kontsumitzailea babestea

ENMIENDA Nº1 DE MODIFICACIÓN AL ARTÍCULO 30

El artículo 30 queda redactado como sigue:

Artículo 30. Venta a domicilio

1. La venta de productos o servicios en el domicilio de la persona consumidora o usuaria que no haya sido solicitada por ésta exige su autorización previa. Dicha autorización deberá obtenerse, al menos, 48 horas antes de la visita de venta y contener:

a) Fecha y hora de la visita,
b) Producto o servicio que quiere vender,
c) Razón y domicilio social de la empresa que vende el producto o servicio y
d) Nombre de la persona que realizará la visita.

2. Es responsabilidad de las personas empresarias acreditar la información y la autorización y presentarla ante las autoridades de consumo, si fuesen requeridas para ello.

Justificación: mejora técnica.

ENMIENDA Nº2 DE MODIFICACIÓN AL ARTÍCULO 49

El artículo 49 queda redactado como sigue:

Artículo 49. Información sobre la identidad de las personas empresarias en las ofertas en línea de servicios

Quienes oferten en línea a las personas consumidoras la posibilidad de adquirir bienes o contratar servicios deberán informar con claridad y de forma permanentemente visible a las personas consumidoras y usuarias acerca de la identidad de la empresa con la que vaya a celebrarse el contrato o la adquisición del producto y de la responsabilidad que sobre tal contratación corresponde a las oferentes.

Justificación: mejora técnica.

ENMIENDA Nº3 DE MODIFICACIÓN AL ARTÍCULO 94.1

El artículo 94 queda redactado como sigue:

Artículo 94.- Junta Arbitral de Consumo de Euskadi

1. Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo ejercerá las funciones de fomento, gestión y desarrollo del Sistema Arbitral de Consumo a través de la Junta Arbitral de Consumo de Euskadi y coordinará su funcionamiento con los ayuntamientos.
2. Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo promoverá la adhesión a la Junta Arbitral de Consumo de las asociaciones de personas consumidoras y usuarias, de las personas empresarias y los profesionales y de sus respectivas organizaciones, con las que podrá suscribir convenios de colaboración con tal finalidad.

Justificación: mejora técnica.

ENMIENDA Nº4 DE MODIFICACIÓN AL ARTÍCULO 142.2

El artículo 142 apartado 2 queda redactado como sigue:

Artículo 142.- Calificación y graduación de las infracciones.

1. (...)

2. Cuando no sea de aplicación lo previsto en el apartado anterior, las infracciones se calificarán inicialmente por los caracteres de la acción u omisión y de la culpabilidad del responsable conforme a las siguientes reglas:

1ª. Se calificarán como graves, salvo que tengan la consideración de muy graves de acuerdo con el apartado tercero de este artículo, las infracciones tipificadas en

a) el artículo 134, apartado 4
b) el artículo 135, apartado 1
c) el artículo 137, apartados 6 y 8.
d) el artículo 138, apartados 1, 21 y 22.
e) el artículo 139.
f) el artículo 141, apartado 8, 9 y 13

(...)

Justificación: Adaptar a la normativa básica.

ENMIENDA Nº 5 DE ADICIÓN AL ARTÍCULO 44 DEL APARTADO 6 Y 7

Se añadiría un apartado 6 y 7 al artículo 44:

Artículo 44. Información del etiquetado y presentación de los bienes y servicios.

(...)

6. A las personas consumidoras deberá facilitarse un documento resumen que, de forma legible, clara, sencilla y suficiente, incluya las condiciones esenciales del producto o servicio que se ofrece y especialmente aquellas que tengan una afectación económica.

7. En los casos en los que se ofrezca financiación para la adquisición de un producto o servicio, deberá facilitarse un documento en el que se informe de forma clara y completa la comparativa del coste final del producto o servicio con y sin financiación.

Justificación: Refuerzo de la información y protección del consumidor